AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA

*ERMUA HIRIKO UDALA*

7199/2019

**Informe de Secretaría**

***Idazkiaren txostena***

ORG13I0X4

Código de validación/*Balidazio kodea*
2U533A3T5H3O0H3A10D9

***Txostena egin duen funtzionarioa***
*Daniel Salazar Irusta. Idazkaria*

***Gaia***
*José Luis Araujo Araujoren kargu-uztea*

**Funcionario/a que lo emite**
Daniel Salazar Irusta

**Asunto**
Renuncia del cargo de concejal/a de José Luis Araujo Araujo

*Ermuko Udala zinegotzi den José Luis Araujo Araujok idatzi bat aurkeztu du arazo pertsonalengatik bere zinegotzi-karguari uko egiten diola adieraziz.*

*Hauteskunde Erregimen Orokoarrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak udalkideen agintaldiari, banan-banan zein taldeka, amaiera emateko arrazoi zenbait jasotzen ditu. Horien artean aipatzekoak dira, HAOLOren 182. artikuluari jarraiki, zinegotziaren heriotza, gaitasunik eza edo bere karguaren ukoa, halakoetan kargua hauteskunde-zerrendako hurrengo hautagai edo ordezkoari egokituko litzaiokeelarik.*

*Hauteskunde Erregimen Orokorra arautzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 15. artikuluak ezartzen duenez, probintzi eta eskualdeetako hauteskunde-batzordeen agintaldia hauteskundeak izan direnetik ehun egunera amaituko da, hortaz, hauteskunde-administrazioaren organo iraunkor bakarra Hauteskunde-batzorde Nagusia izango da*

*Hori horrela, zinegotzi baten heriotza, gaitasun falta edo karguaren ukoa gertatzen direnean, hiru kasu bereiz ditzakegu:*

*a) Zinegotzi aldarrikatu eta karguaren jabetza hartu bitartean gertatzen denean.*

*Halakoetan zinegotziaren alderdi politikoak, federazioak edo koalizioak, bere*

Por José Luis Araujo Araujo, concejal del Ayuntamiento de Ermua se ha presentado escrito de renuncia al cargo de concejal, por motivos personales.

La Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, recoge algunos de los supuestos en que finaliza el mandato de los/as miembros de las Corporaciones locales, bien de forma individual o colectiva. De entre estos motivos destacamos, según el artículo 182 LOREG, el fallecimiento, incapacidad o renuncia de un/a concejal/a, atribuyéndosele el escaño al/a la candidato/a o suplente que corresponda según su orden de colocación en las elecciones.

El artículo 15 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, que regula el Régimen Electoral General establece que el mandato de las Juntas Provinciales y de Zona concluye cien días después de las elecciones. Ello quiere decir que el único órgano permanente de la administración electoral es la Junta Electoral Central.

En consecuencia, en el fallecimiento, incapacidad o renuncia de un/a concejal/a hemos de distinguir tres supuestos:

a) Que se produzca entre la proclamación de concejal/a y su toma de posesión.

En este caso, el partido político, federación o coalición a que pertenezca el/la

*ordezkariaren bitartez, zerrenda bereko hurrengo hautagai edo, hala denean, ordezkariaren izenean beste egiaztagutun bat egiteko eskatuko dio dagokion eskualdeko hauteskunde-batzordeari.*

concejal/a se dirigirá directamente a la Junta Electoral de Zona por medio de su representante solicitando que expida nueva credencial al/a la candidato/a o, en su caso, al/a la suplente de la misma lista a quien corresponda, atendido su orden de colocación.

*b) Zinegotziak karguaren jabetza hartu eta Durango Eskualdeko Hauteskunde-batzordearen agintaldiak dirauen ehun egunen barruan gertatzen denean.*

b) Que se produzca una vez haya tomado posesión del cargo, pero dentro de los cien días de mandato de la Junta Electoral de Zona de Durango.

*Kasu horretan Udalbatzak, zinegotziaren ukoa onartu edo gaitasungabetza sortu duen arrazoiaz jabetu ondoren, dagokion zerrendako hurrengo hautagaiaren egiaztagutuna eskatuko dio Eskualdeko Hauteskunde-batzordeari.*

En este caso el Pleno acepta la renuncia formulada o toma razón de la circunstancia inhabilitante y solicita de la Junta Electoral de Zona nueva credencial del/de la candidato/a que corresponda según el orden de colocación en la lista respectiva.

*c) Azkenik, zinegotziaren ukoa, heriotza edo gaitasun falta Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen agintaldia amaitutakoan gertatzen denean.*

c) Por último, que la renuncia, fallecimiento o incapacidad de un/a concejal/a se produzca cuando la Junta Electoral de Zona haya concluido su mandato.

*Halako kasuetan Udalbatzak, zinegotziaren ukoa onartu edo gaitasungabetza sortu duen arrazoiaz jabetu ondoren, hautagai berriaren egiaztagutuna egiteko eskatuko dio Hauteskunde-batzorde Nagusiari. Hori horrela, Probintzi Hauteskunde-batzordeko idazkaritza izan duten probintzi entzutegietako idazkariek batzordearen agintaldia amaitu eta gero ere gordeta izango dute dokumentazioa, Hauteskunde-batzorde Nagusiak eskatuz gero, zerrendako hurrengo hautagaiaren egiaztagiria egin ahal izateko. Gero Hauteskunde-batzorde Nagusiak dagokion egiaztagutuna luzatuko dio hautagai berriari.*

En este supuesto el Pleno acepta la renuncia formulada o toma razón de la circunstancia inhabilitante y se dirigirá a la Junta Electoral Central, para que expida la credencial al/a la nuevo/a candidato/a. A tal fin los/as Secretarios/as de las Audiencias Provinciales que hayan desempeñado la Secretaría de la correspondiente Junta Electoral Provincial conservarán y custodiarán los documentos de dichas Juntas una vez disueltas las mismas para librar, a requerimiento de la Junta Electoral Central, la correspondiente certificación acerca de quién sea el/la candidato/a siguiente en la lista, al/a la cual debe la Junta Electoral Central expedir la correspondiente credencial.

*Hauteskunde-batzorde Nagusiaren 1991eko uztailaren 11ko aginduak, udaletako karguen ordezkapenaren inguruan ari dela, zinegotziaren heriotza, ukoa edo udal karguraren galera sor dezaketen kasuetan nola jardun behar den ezartzen du: zinegotziak bere karguaren ukoa idatziz aurkezten duenean –berdin da ukapena zinegotziaren borondatezkoa edo bateraezintasun arrazoiengatik udalbatzak egindako adierazpen baten ondoriozkoa den- eta udalbatza horretaz jabetu edo bakantea adierazi ondoren, hartutako erabakiaren egiaztagiria bidaliko dio eskualdeko hauteskunde-batzordeari edo Hauteskunde-batzorde Nagusiari –segun eta nola bete behar den bakantea- betetzea dagokion pertsonaren izena adieraziz.*

La Instrucción de la Junta Electoral Central de 11 de julio de 1991 sobre sustitución de cargos representativos locales establece los criterios a efectos de proceder a la sustitución en los casos de fallecimiento, renuncia u otro supuesto de pérdida del cargo representativo local, y se refiere a que cuando se presente escrito de renuncia, sin hacer distinciones entre la renuncia voluntaria y la declaración realizada por el Pleno consecuencia de la incompatibilidad, una vez que el Pleno de la Corporación de la que forme parte tome conocimiento de la misma o declare la vacante, remitirá certificación del acuerdo adoptado a la Junta Electoral de Zona o a la Junta Electoral Central, según proceda cubrir la vacante, indicando el nombre de la persona a quien corresponda cubrir aquélla.

*Bestalde, garrantzitsua da jakitea zinegotzi baten kargu-ukapenak noiz izango duen eragina.*

De otra parte, interesa conocer cuándo surte sus efectos la renuncia al cargo formulada por un/a concejal/a.

*AJEren 9,4 artikuluan ezartzen denez zinegotzi izateari uzteko, besteak beste, "karguari uko egin beharko zaio, Udalbatzari zuzenduko idatzi baten bitartez".*

El artículo 9,4 ROF señala que se pierde la condición de concejal/a, entre otras causas *"por renuncia, que deberá hacerse efectiva por escrito ante el Pleno de la Corporación"*.

*Beraz, zinegotzien dimisioa, kargu-uztea edo ukoa idatziz aurkeztu behar zaio Udalbatzari. Azken baten idatzi hori Udalbatzari asmoen adierazpena egin aurretiko prestaketa-egintza bat besterik ez da, horregatik beharrezkoa da Udalbatzaren aurreko eta haren aldetiko berrespen irmo bat egitea.*

En consecuencia la dimisión, el cese o renuncia de los/as concejales/as se hace efectivo ante el Pleno y se ha de efectuar por escrito. Esto significa que el escrito de renuncia se considera como acto preparatorio mientras no se haga efectiva la declaración de voluntad ante el mismo Pleno, lo que equivale a la necesidad de una verdadera ratificación solemne ante y por parte del Pleno.

*Hala ere, araubide horretan badira argitu gabeko aspektu zenbait, hala nola, ea karguaren ukoa Udalbatzari idatziz aurkeztearekin nahikoa ote den ala beste*

Ahora bien, quedan en esta regulación aspectos sin aclarar, tales como si es suficiente la mera renuncia por escrito ante

*zerbait beharko litzakeen.*

*Auzitegi Gorenak dio zuzenbidearen teoria orokorrean ezarritako oinarri berberak aplikatu behar direla; horrek esan nahi du, zinegotziaren alde bateko adierazpen pertsonala izanik, Udalbatzak onarpena eman arte bere erabakia atzera bota dezakeela.*

*Beraz, ukoa adierazten duen idatzia Udalbatzari asmoen adierazpena egin aurretiko prestaketa-egintza bat besterik ez da, horregatik behar-beharrezkoa da Udalbatzaren aurreko eta haren aldetiko berrespen irmoa, izan ere hala ezartzen da Auzitegi Gorenak 1982ko martxoaren 2an, 1984ko abenduaren 28an, 1988ko maiatzaren 5ean eta 1990eko urtarrilaren 25ean emaiko epaietan.*

*Auzitegi Gorenak 1992ko martxoaren 31n emaniko epaian ezartzen denez, zinegotziaren alde bateko adierazpen pertsonal hori berori jaso izanaren adierazpenaz berretsi behar du Udalbatzak, beraz, une horretara arte atzera egin dezake interesdunak. Tesi hori defendatzeko Auzitegi Gorenak lehengo Administrazio Prozeduraren Legeko 95. artikuluari egiten dio aipamen, non zinegotzi ororen atzera egiteko eskubidea aitortzen den bere eskariari uko eginez. Orain Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 90,1 artikuluan jasotzen da atzera egiteko eskubide hori.*

*Hortaz, karguari uko egin dion zinegotzi batek bere erabakian atzera egiten badu Udalbatzak eskaria onartu baino lehen, ezingo zaio dagozkion gobernu-organoetan parte hartzeko eskubidea ukatu. Karguaren*

el Pleno o es necesario algún otro requisito.

El Tribunal Supremo indica que son aplicables los principios generales establecidos en la teoría general del Derecho, según los cuales se trata de una declaración unilateral y recepticia, de carácter personalísimo, por lo que su autor/a es libre de revocarla antes de que haya sido aceptada por el Pleno.

Esto significa que el escrito de renuncia se considera como acto preparatorio mientras no se haga efectiva la declaración de voluntad ante el mismo Pleno, lo que equivale a la necesidad de una verdadera ratificación solemne ante y por parte del Pleno, conforme establecen las sentencias del Tribunal Supremo de 2 de marzo de 1982, de 28 de diciembre de 1984, de 5 de mayo de 1988, y de 25 de enero de 1990.

Asimismo la sentencia del Tribunal Supremo de 31 de marzo de 1992 declara que, el negocio jurídico unilateral a que se contrae la renuncia se perfecciona mediante la declaración del Pleno de haberlo recibido, pudiendo hasta ese momento revocar el/la interesado/a la renuncia. En apoyo de esta tesis se invocaba por el Tribunal Supremo el artículo 95 de la anterior Ley de Procedimiento Administrativo que permitía a toda persona interesada la renuncia a su petición. En la actualidad dicha facultad de renuncia viene recogida en el artículo 90,1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de la Administración Pública y del Procedimiento Administrativo Común.

Por ello, si el/la miembro de la Corporación que renuncia al cargo de concejal/a revoca esta renuncia antes de la aceptación por el Pleno de la Corporación, continuará en el cargo, y no se le podrá

*ukoa aurkeztu eta atzera egin duen zinegotziari bilkuretara joateko eskubidea eragotziko balitzaio Espainiako Konstituzioaren 23,2 artikulua urratuko litzake eta, 1988ko urriaren 4ko Auzitegi Gorenaren epaian ezarritakoari jarraiki, kargu publikoan irauteko eskubidea ere bai.*

*Beraz, Udalbatza ukoaz jabetu aurretik legeak atzera egiteko aukera ematen dio ukatzaileari, baina jabetu denean ukoa eraginkorra izango da zinegotziak bere dimisio-idatzia aurkeztu zuen unetik bertatik. Horrek bere garrantzia du zeren dimisio-idatzia aurkeztu eta Udalbatza jabetu bitartean zinegotziak, atzera egiten ez badu ere, zinegotzi izaten jarraituko du bere betebehar eta eskubide guzti-guztiak mantenduz: Udalbatzaren eta batzorde ezberdinen bilkuretara joatea, dietak eta kalte-ordainak kobratzea edo, hala denean, bateraezintasunak sortzea edo hutsegiteetan erortzea. Hori horrela, zinegotziaren dimititzeko nahiak -behar bezala adierazia izan bada- haren betebehar eta eskubideen etendura sortuko du kargu-uztea burutu edo zinegotziak bere erabakian atzera egin ez arte.*

impedir el derecho a participar en los órganos de gobierno que le corresponde. Si como consecuencia de la presentación de esta renuncia inicial revocada se le impidiera ejercer el derecho a asistir a las sesiones se estuviese produciendo una vulneración del artículo 23,2 CE y del derecho a permanecer en el cargo público que ostenta, conforme ha declarado la sentencia del Tribunal Supremo de 4 de octubre de 1988.

En conclusión, la interpretación jurisprudencial consolidada permite al/a la renunciante desistir antes de la toma de razón por el Pleno. No obstante, entendemos que una vez hecha efectiva la renuncia mediante la toma de conocimiento por el Pleno, sus efectos deben retrotraerse al momento de presentación del escrito de dimisión. La cuestión puede tener su importancia, pues entre un momento y otro puede transcurrir un cierto tiempo durante el cual, si no existiera retroacción, el/la concejal/a continuaría siéndolo con todas sus consecuencias: deber de asistencia a Plenos y Comisiones, derecho a percibir dietas, indemnizaciones y, en su caso, sueldos, producción de incompatibilidades, posibilidad de incurrir en responsabilidad, etc. Por esta razón, cabe argumentar que la voluntad dimisionaria del/de la concejal/a, debidamente manifestada, produciría la suspensión de sus obligaciones y derechos en tanto no sea consumado el cese o no se produzca la revocación de la renuncia.

*Bestalde, Neurri Fiskal, Administratibo eta Sozialei buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legearen 42,7 artikuluan xedatutakoari jarraituz -zeinak TJOALen 75. artikulua aldarazten duen- udalkideek, bai karguaz jabetzean eta bai berori uztean, aitorpena egin beharko dute izan ditzaketen bateraezintasunei, diru-sarrerak ematen edo eman diezaizkieketen jarduerei eta ondare-ondasunei buruz.*

De otra parte, en concordancia con lo establecido en el artículo 42,7 de la Ley 14/2000, de 29 de diciembre, de Medidas Fiscales, Administrativas y del Orden Social, que modifica el artículo 75 LBRL, todos/as los/as miembros de las Corporaciones Locales formularán declaración sobre causas de posible incompatibilidad y sobre cualquier actividad que les proporcione o pueda proporcionar ingresos económicos, y de bienes patrimoniales, respectivamente, tanto a la toma de posesión como con ocasión de su cese.

*Beraz, aipaturiko arauetan ezarritakoari jarraituz, interesdunak bere karguaren ukoa idatziz aurkezten duenetik Udalbatzak egiten duen hurrengo osoko bilkuraren gai-zerrendan sartuko da gaia, bakantea dagoela adierazi eta hauteskunde-batzordeari jakinarazteko. Ekainaren 19ko HAOLOren 182. artikuluan ezarritakoa betez*, "zinegotzi batek bere karguari uko egiten badio hautagai-zerrenda bereko hurrengo hautagai edo, hala behar bada, ordezkoari esleituko zaio kargua".

A la vista de la normativa expuesta cabe concluir que, formulada la correspondiente renuncia por escrito, por parte del/de la interesado/a, en la primera sesión que celebre el Pleno de la Corporación se incluirá este asunto en el orden del día de dicha sesión, al objeto de que por el Pleno de la Corporación se declare la vacante y se ponga este hecho en conocimiento de la administración electoral, a los efectos previstos en el artículo 182 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, que establece que *"en caso de renuncia de un concejal, el escaño se atribuirá al candidato, en su caso, al suplente de la misma lista a quien corresponda, atendiendo a su orden de colocación".*

*Hori horrela, eta prozedura arintzeko xedez, zinegotzien ordezkapenetan, praktikan behintzat, egintza berean egin ohi da dagokion zerrendako hurrengo pertson(ar)en kargu-ukapena -hala nahi baldin badu(te)- eta zerrendan geroago dagoen pertsonaren izendapena.*

A este propósito, la práctica de las sustituciones de concejales/as viene admitiendo por razones de economía procesal y celeridad, que la persona siguiente o siguientes en la lista de que se trate puedan renunciar a tomar posesión del cargo de concejal/a, facilitando de esta manera, en un solo acto, el nombramiento de otra persona colocada en puesto posterior.

*Hortaz, izendapena Partido Socialista*

En consecuencia procede que se

*de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE)ren zerrendan bederatzia zenbakia duen hautagairen izenean egin dezala eskatu beharko zaio hauteskunde-batzordeari.*

*Udalbatzak zinegotzi-kargu bat utzik dagoela adieraziz hartutako erabakiaren egiaztagiria bidali eta gero, uko egin duen zinegotziaren zerrendan hurrengo dagoen pertsonaren aldeko zinegotzi-egiaztagutuna egingo du Hauteskunde-batzorde Nagusiak.*

*Aipaturiko zinegotzi-egiaztagutuna Udaletxean jasotzen denetik Udalbatzak egiten duen hurrengo bilkuraren gai-zerrendan sartuko da ordezkatutako zinegotzi kargua jabetzan hartzeko erabaki-proposamena, hala ezartzen baita ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko Legean -zeina apirilaren 21eko 11/1999 eta abenduaren 16ko 57/2003 legeek aldarazi duten.*

*Beraz, Udalbatzak ondorengo erabakia har dezala proposatzen zaio organo horri:*

*“1. Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren hautagai-zerrendako José Luis Araujo Araujok bere zinegotzia karguari uko egin dionez gero, kargu hori hutsik dagoela adieraztea.*

*2. Aipaturiko bakantea Hauteskunde-batzorde Nagusiari jakinaraztea, kargua Pedro Gallego Monteirori, Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) alderdiaren Ermuko*

solicite la emisión del correspondiente nombramiento a favor del/de la candidato/a que ocupa el número nueve de la lista del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE).

Remitida certificación del acuerdo del Pleno corporativo sobre declaración de la vacante, por la Junta Electoral Central se procederá a extender la oportuna credencial de concejal/a a favor de la persona siguiente en la lista a la que pertenece el/la renunciante.

Recibida esta credencial de concejal/a en el Ayuntamiento se incluirá en el orden del día de la primera sesión que celebre el Pleno de la Corporación el acuerdo de toma de posesión del/de la concejal/a sustituido/a, de conformidad con los requisitos establecidos en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, y Ley reguladora de las Bases de Régimen Local 7/1985, de 2 de abril, modificada por la Ley 11/1999, de 21 de abril, modificada por la Ley 57/2003, de 16 de diciembre.

Conforme a lo expuesto, se propone al Pleno de la Corporación la adopción de la resolución siguiente:

"1º. Declarar la vacante de José Luis Araujo Araujo producida por renuncia al cargo de concejal, de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE).

2º. Notificar la vacante a la Junta Electoral Central al objeto de que esa administración electoral proceda a cubrir la vacante, atribuyendo el escaño al candidato

*zerrendako hurrengo hautagaiari, esleituz bakantea bete dezan".*

de la lista de la candidatura del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE) (PSE-EE/PSOE) por Ermua, Pedro Gallego Monteiro".

Fdo./Sin.:
Secretario/Idazkaria
Daniel Salazar Irusta
14-11-2019 12:22